

Itsasoaren inguruan izango da aurten Bilboko Poesia Astea

Erredakzioa. Bilbo.

Poesia herritarrei gerturatzeko xedearekin, Bilboko Poesia Astearen XVIII. ekitaldia egingo dute urriaren 15etik 21era. Bidebarrieta poesia portu lelopean itsasoa izango da aurtengo gaia.

Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak antolatu du Bilboko Poesia Astea, irakurzaletasuna eta liburuak hedatzearen aldeko kanpainaren barnean.

Gabriel Aresti Eguna, Hector Alterioren poesia emanaldia, itsasoko olerkariei buruzko tertulia, Korsikako olerkigintzaren aurkezpena eta musika eta poesia uztartzen dituzten ikuskizunak antolatu dituzte, besteak beste, poesia asterako.

Lau gunetan banatuko dituzte ekitaldiok. Poesia eta musika ikuskizunak, Alterioren errezitaldia eta Jaume Sisaren kontzertua Bidebarrieta Liburutegiko Areto Nagusian egingo dira astelehenetik ostiralera eta igandean 19:30ean.

Asteburuko ekitaldi gehienak Areatzako karpan egingo dira. Horien artean, FastFatumen ikuskizuna, umeen poesia lehiaketako sari banaketa edota Posiaren Jaia azpimarratu beha dira.

Areatzako pasealekuan argazki eta poesia erakusketa egongo da aste osoan zehar eta Deustuko Udal Liburutegian Itsasoari Begira olerkigitza tailerra egingo da urriaren 16, 17 eta 18an.